


# NDF-REN AURREIKUSPENAK

## NDFk munduko ekonomiarentzako aurreikuspenak eguneratu ditu

### MUNDUKO BPG-A

Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021

NDFren urtarrileko txostenetik apirileko azken argitalpenera bitartean, munduak aldaketa aparta jasan du Covid-19ren eraginez. Osasun larrialdiak aurrekaririk gabeko krisi ekonomikoa ekarri du berekin. Halaber, shockaren iraupenari eta intentsitateari buruzko ziurgabetasuna maximoa da.


Oinarrizko eszenategi batean, NDFk aurreikusten du munduko hazkundearen beherakada handia izango dela,  $-3,0$  2020an. 2021erako, susperraldi partziala espero da, urte arteko % 5,8ko tasarekin, baina krisiaren aurreko urteetan BPGaren mailak izan zuen joeraren azpitik.

### NDFREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>2,9</b>	<b>-3,0</b>	<b>5,8</b>	<b>-6,3</b>	<b>2,4</b>
<b>Ekonomia aurreratutak</b>	<b>1,7</b>	<b>-6,1</b>	<b>4,5</b>	<b>-7,7</b>	<b>2,9</b>
AEB	2,3	-5,9	4,7	-7,9	3,0
Eurogunea	1,2	-7,5	4,7	-8,8	3,3
Alemania	0,6	-7,0	5,2	-8,1	3,8
Frantzia	1,3	-7,2	4,5	-8,5	3,2
Italia	0,3	-9,1	4,8	-9,6	4,1
Espainia	2,0	-8,0	4,3	-9,6	2,7
Erresuma Batua	1,4	-6,5	4,0	-7,9	2,5
Japonia	0,7	-5,2	3,0	-5,9	2,5
<b>Garatzen ari diren herrialdeak</b>	<b>3,7</b>	<b>-1,0</b>	<b>6,6</b>	<b>-5,4</b>	<b>2,0</b>
Txina	6,1	1,2	9,2	-4,8	3,4
India	4,2	1,9	7,4	-3,9	0,9
Errusia	1,3	-5,5	3,5	-7,4	1,5
Brasil	1,1	-5,3	2,9	-7,5	0,6


## EKONOMIA AURRERATUEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## AEB-ETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ERRESUMA BATUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




NDFk eszenategi are ezkorragoak kalkulatu dituzte pandemiaren hedapena kontrolatzea lortzen ez bada edo enpresen eta enpleguaren gaineko eraginak zorrotzagoak eta iraunkoragoak badira.

Erakundeak funtsezkotzat jotzen du gobernuek osasunaren arloan eginiko gastua handitzea, pandemia honen edo beste batzuen balizko agerraldien aurrean behar diren gaitasuna eta baliabideak emateko.

Orobat, zerga, moneta eta finantza arloetan ere ezohiko politikak eskatu ditu. Gainera, alde anitzeko lankidetzaren alde egiten du, non nazioarteko lankidetzak bere laguntza bideak areagotu beharko dituen eta munduko ekonomian normaltasun berri bat bermatzeko ahaleginak zuzendu beharko dituen.

## ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.